

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

*Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak - 2022*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko otsailaren 17ko bilkuran Usurbilgo udalerrian merkatu libreko etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Ondorioz, oinarri orokorren eta espezifikoen testu osoa argitaratzen da eta iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogeita (20) egun balioduneko epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztia-rekin.

*Inprimakien inguruko oharra:* Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web orrian, dirulaguntzen atalean.

Euskaraz: <https://www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak>.

Gazteleraz: <https://www.usurbil.eus/es/subvenciones>.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri.

Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Non: Tokiko Gobernu Batzarrera jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi-  
ra jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi-  
ra jo behar da.

Usurbil, 2022ko otsailaren 17a.—Agurtzane Solaberrieta  
Mesa, alkatea. (1086)

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Subvenciones para el alquiler de viviendas - 2022*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión celebrada el día 17 de febrero de 2022, aprobó las bases para la concesión de ayudas económicas para el alquiler de viviendas en el mercado libre en el municipio de Usurbil.

Se publican el texto íntegro de las bases generales y específicas y se concede un plazo de veinte (20) días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para que las personas interesadas presenten las solicitudes para la obtención de las ayudas económicas junto con toda la documentación necesaria.

*Nota sobre los impresos:* Los impresos estarán a disposición de las personas o entidades interesadas en la página web municipal, en el apartado de subvenciones.

En euskera: <https://www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak>.

En castellano: <https://www.usurbil.eus/es/subvenciones>.

Recursos contra el acuerdo:

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Contra el mismo podrá interponerse recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo.

a) Antes de acudir a los tribunales, el solicitante podrá, si así lo desea, interponer recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Plazo: Un mes, a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: Ante la Junta de Gobierno Local.

b) En otro caso, podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa.

c) Para recurrir la resolución del recurso de reposición:

Plazo: dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación de la resolución del recurso de reposición.

Si, por el contrario, la Administración no contestase al recurso de reposición, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzca la acción presunta conforme a su normativa específica.

Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa.

Usurbil, a 17 de febrero de 2022.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (1086)

*Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautuko dituzten oinarri erregulatzailak.*

## ARRAZOIEN AZALPENA

Dagokigun honen xedea da Usurbilgo herrian etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, konkurrentziarako lehiaren erregimenean eta Usurbilgo Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez.

Dirulaguntzek honako helburu hau izango du:  
Usurbilgo alokairuko etxebizitza eskuratzea erraztea.

### I. XEDEA

#### 1. artikulua. Xedea.

Ebazpen honen xedea da eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzeko oinarri erregulatzailak ezartzea.

Dagoeneko etxebizitza errentan hartuta izan behar dute eta horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza) eskubiderik ez dute izan behar.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia egiten den aurreko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioak gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

#### 2. artikulua. Onuradunak.

Pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dute dirulaguntza. Eskaera norbanako gisa edota bizikidetzaren unitate batean bilduta aurkez daiteke.

Eskatzaile guztiek oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, bere kasuan bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen seme-alaba adingabeak salbu.

Dirulaguntza hauei dagokionez, bizikidetzako unitatetzat jotzen da diruz lagundu nahi den etxebizitzaren bizi diren pertsonen multzoa.

#### 3. artikulua. Baztertzak.

Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:

- a. Ondorengo etxebizitzak:
  - Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
  - Azpierreariak.
  - Logelen alokairuak (logela eskubidea).
  - Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
  - Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.
  - Helburu turistikoa duten etxebizitzak badira.
- b. 700,00 eurotik gorako alokairu-errentak, eranskinak barne.
- c. Urtebetetik (1) beherako kontratuak.

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el alquiler de viviendas en el municipio de Usurbil.*

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El objeto de la presente es acordar las bases que regirán la concesión de subvenciones para el alquiler de viviendas en el municipio de Usurbil, en régimen de concurrencia competitiva, en cumplimiento de lo establecido en la Ordenanza General de Subvenciones de Usurbil.

Las subvenciones tendrán por objeto:  
Facilitar el acceso a la vivienda de alquiler en Usurbil.

### I. OBJETO

#### Artículo 1. Objeto.

El objeto de la presente Resolución es establecer las bases reguladoras para la colaboración en el pago de parte del alquiler de la vivienda habitual de los solicitantes.

Deberán tener la vivienda ya arrendada y no tener derecho al resto de ayudas destinadas a ello (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza).

Gastos subvencionables: los gastos de alquiler objeto de subvención serán del 1 de enero al 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria.

De acuerdo con lo previsto en este Reglamento, quedan excluidos del arrendamiento o concepto subvencionable los gastos de garaje, comunidad y administración, así como los que se originen en concepto de contribuciones o tributos, aun cuando estén expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

De la cuota mensual de alquiler se deducirá un valor fijo de 30 euros por los gastos de garaje o comunidad descritos en el párrafo anterior, incluidos en el contrato de alquiler, siempre que no se presente justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

#### Artículo 2. Beneficiarios.

Podrán acceder a la subvención las personas físicas. La solicitud podrá presentarse en forma individual o agrupada en una unidad de convivencia.

Todos los solicitantes deberán cumplir los requisitos exigidos en las presentes bases, excepto en el caso de los hijos menores de edad que formen parte de la unidad de convivencia.

A efectos de estas subvenciones, se entiende por unidad de convivencia el conjunto de personas que habitan la vivienda cuyo alquiler se solicita subvencionar.

#### Artículo 3. Exclusiones.

No serán beneficiarias de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:

- a. Las siguientes viviendas:
  - Las viviendas de protección oficial de promoción pública.
  - Los subarriendos.
  - Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).
  - Los locales utilizados como vivienda.
  - Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.
  - Las viviendas de uso turístico.
- b. Las rentas por alquiler superiores a 700,00 euros, incluidos los anejos.
- c. Contratos de duración inferiores a un (1) año.

d. Beren izaera eta xedeagatik beste udal departamentu edo erakunde autonomo batzuen beste programa batzuei heldu behar litzaiekeenak (Etxebizitzako Prestazio Osagarria, Gaztelagun, Etxebizitza-eskubide subjektiboa, etab.).

Etxebizitza bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da.

## II. BALDINTZAK

**4. artikulua.** *Etxebizitzaren eta errentamendu kontratua-ren baldintzak.*

Dirulaguntzaren xede den etxebizitzak Usurbilgo udalerrian egon beharko du.

Etxebizitza Udal erroldan eta katastroan alta emanda egotea.

Etxebizitzak Hirigintza onarpena izatea.

Maizterrek familia unitatea osatzen ez badute, kontratua bizikidetzaren unitateko kide guztien izenean egon da.

Errentamendu-kontratua errentakide guztiak banan-banan orri guztietan sinatua izango dute.

Alokairu-kontratua iraupenak, gutxienez, hamabi (12) hilabetekoa izan beharko du.

Alokairuaren errentak ez dira 700 euro baino gehiago izanen hilean.

Alokairua banku-transferentziaren bidez ordainduko da.

Betiere, etxebizitzak bizigarritasun baldintza hauek izan beharko ditu gutxienez:

– Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturria elektrikoa edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

– Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

– Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelaren eta sukaldean.

– Erabiltzeko egoeran dagoen 220 voltetako instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

– Iturriko ura izatea.

– Saneamendua sare orokorrera lotuta.

– Kalerako aireztatzea.

– Bizikidetzaren unitateko bi pertsonako (gehenez) logela bat.

**5. artikulua.** *Eskatzaileak bete beharreko baldintzak.*

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz laguntzen ahal den epean berariazko baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzaren unitateak:

a. Eskatzaileen adina: 18 urtetik gorakoak (edo 16tik gorakoak, emantzipatuta badaude).

b. Errolda: Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzaren erroldatuta egon beharko dira, dirulaguntza eskatu duten epealdiraren zehar.

c. Eskatzailea Usurbilgo udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratua titular izan beharko da (norberaren izenean edo errentakide gisa) eta hori izan beharko da bizikidetzaren unitate eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza.

d. Eskatzaileak ez du inolako familia-loturarik edukiko etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

d. Aquellas que por su naturaleza y objeto debieran acogerse a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos (Prestación Complementaria de Vivienda, Gaztelagun, Derecho subjetivo de vivienda, etc.).

Solamente se admitirá una única solicitud por vivienda.

## II. REQUISITOS

**Artículo 4.** *Requisitos de la vivienda y del contrato de arrendamiento.*

La vivienda objeto de la subvención deberá estar situada en el término municipal de Usurbil.

Estar dado de alta en el Padrón Municipal de Vivienda y en el Catastro.

Aceptación urbanística de la vivienda.

En el caso de que las personas inquilinas no formen una unidad familiar, el contrato estará a nombre de todos los miembros de la unidad de convivencia.

El contrato de arrendamiento será suscrito por todos los arrendatarios individualmente en todas sus hojas.

La duración del contrato de alquiler deberá ser como mínimo de doce (12) meses.

Las rentas por alquiler no superarán la cantidad mensual de 700 euros.

El pago del alquiler se realizará mediante transferencia bancaria.

En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

– Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.

– Cuarto de baño con ducha o bañera.

– Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.

– Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.

– Disponer de agua corriente.

– Saneamiento con vertido a la red general.

– Ventilación a la calle.

– Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar.

**Artículo 5.** *Requisitos del solicitante.*

Podrán ser beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes Bases, las personas o unidades de convivencia que, a fecha de publicación de la respectiva convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, cumplan los siguientes requisitos específicos:

a. Edad de los solicitantes: mayores de 18 años (o mayores de 16 si están emancipados).

b. Padrón: Todas las personas de la unidad de convivencia que sean beneficiarias de subvenciones deberán estar empadronadas en la vivienda objeto de subvención durante el periodo de solicitud de la subvención.

c. El solicitante deberá ser titular del contrato de arrendamiento de una vivienda libre, en nombre propio o en calidad de arrendatario, ubicada en el término municipal de Usurbil, siendo ésta la vivienda habitual y permanente de la unidad solicitante.

d. El solicitante no tendrá vínculo familiar alguno con el arrendador de la vivienda o con alguno de sus miembros de la unidad de convivencia, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

e. Eskatzaileetako edo bizikidetz-unitatea osatzen duten kideetako inork ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik. Baldintza honetatik salbu geratzen dira herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide direnak, betiere titulartasun ehunekoa % 50etik gorakoa ez denean eta partaidetzen balio katastrala 75.000,00 euro baino gehiagokoa ez bada.

Hala ere, etxebizitza baten jabeek % 50etik gorako portzentajearen eskatzen ahalko dituzte laguntzak, etxebizitza hori erabili ezin dutenean kasu hauetan:

– Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emalea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

– Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.

– Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Gizarte Zerbitzuek egiaztatu beharko dute egoera hori.

– Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

f. Diru-sarrera baldintzak: bizikidetz-unitateko diru-sarren mugak honako hauek izango dira:

– Urteko diru-sarrera gordinak gutxienez 3.000 eurokoa izango da.

– Onuradun bakarria baldin bada, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 28.000 euroko kopurua.

– Bi onuradun edo gehiago izanez gero, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 35.000 euroko kopurua.

Banandu, dibortziatuen eta iraungitako izateko bikoteen kasuan, diru-sareren zenbatekoa kalkulaterakoan seme-alabengatik mantenu pentsioa eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.

a. Bizikidetz-unitateko kide guztiak Usurbilgo Udalaren zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketan egunean egon beharko dute.

b. Eskatzailea edo bizikidetz-unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuraduna izan badaiteke (administrazio honek edo besteren batek emana), ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

c. Eskatzaileak edo bizikidetz-unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuradun izateko eskubidea izanda ere (administrazio honek edo besteren batek emana), betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltsua aurkezteagatik hura ukatu egin bazaio, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

Bizikidetz-unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira; hau da: etekinak nahiz ondarea.

### III. ESKARIAK

#### 6. artikulua. *Eskaerak aurkeztea eta dokumentazioa.*

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki.

– Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g).

– Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako dirulaguntzak atalean ([www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)).

e. Ninguno de los solicitantes o integrantes de la unidad de convivencia tendrá vivienda de su propiedad. Quedan exceptuados de esta condición los cotitulares de una vivienda en propiedad adquirida por herencia o donación, siempre que el porcentaje de titularidad no supere el 50 % y el valor catastral de las participaciones no supere los 75.000,00 euros.

Sin embargo, podrán solicitar las ayudas las personas propietarias de una vivienda en un porcentaje superior al 50 %, cuando no puedan hacer uso de la misma en los siguientes supuestos:

– Por separación o divorcio. En este caso, se deberá aportar sentencia judicial y convenio regulador que acredite la cesión del uso de la vivienda al otro cónyuge.

– Desahucios del domicilio habitual. En este caso, se deberá presentar sentencia de desahucio.

– En caso de violencia machista o intrafamiliar. Esta situación deberá ser acreditada por los Servicios Sociales Municipales.

– Cuando no puedan hacer uso de su vivienda por causa de catástrofe (inundación, incendio, etc.) o cuando se haya declarado legalmente su destrucción.

f. Los límites de los ingresos de la unidad de convivencia serán los siguientes:

– Los ingresos brutos anuales serán como mínimo de 3.000 euros.

– Si la beneficiaria es una persona, los ingresos brutos anuales no podrán superar el importe de 28.000 euros.

– Si las personas beneficiarias son dos o más, los ingresos brutos anuales no podrán superar el importe de 35.000 euros.

En el caso de personas separadas, divorciadas o parejas de hecho extinguidas, para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.

a. Todos los miembros de la unidad de convivencia tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Usurbil.

b. En el caso de que el solicitante o cualquiera de los miembros que componen la unidad familiar pueda ser beneficiario de otra subvención de similar finalidad otorgada por esta u otra Administración, no podrá acogerse a esta subvención.

c. En el caso de que el solicitante o alguno de los miembros que componen la unidad familiar tengan derecho a ser beneficiario de otra subvención de finalidad análoga, otorgada por esta u otra Administración, y esta le sea denegada por incumplimiento de las obligaciones o por la aportación de documentación falsa, no podrá ser objeto de subvención.

Para la determinación de los recursos de la unidad, se computarán todos los recursos del solicitante y del resto de las personas de dicha unidad, es decir, tanto los rendimientos como el patrimonio.

### III. SOLICITUDES

#### Artículo 6. *Presentación de solicitudes y documentación.*

Las solicitudes podrán presentarse de forma presencial o telemática por personas físicas, y sólo telemática por personas jurídicas.

– De forma presencial, en el Registro General del Ayuntamiento (Joxe Martin Sagardia plaza, s/n).

– De forma telemática, en el apartado subvenciones de los servicios telemáticos del ayuntamiento ([www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)).

Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aitpatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Usurbilgo Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, el-karreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Usurbilgo Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

– Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen NANA edo agiri baliokidea.

– Zerga betebeharrak beteak dituela.

– Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

– Ondasun higiezinak: Hiri etxebizitzaren titularra.

– PFEZ: Aitorpenaren laburpena.

Bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarrera eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:

– Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria.

– Pentsiodunak edo prestazio edo subsidioen jasotzaileak: ekitaldiari dagozkien ziurtagiriak.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu beharrik izan ez badu, honako agiriak konprobatuko dira:

– Foru Ogasunaren ziurtagiria, zergaldi horretan PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena.

Ezin bada datuen artekaritza plataformaren bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Eskabide orria (I eranskina).

– Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia.

– Alokairu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuaren erregistro edo fidantza gordailuan utzi izanaren frogagiria.

– Alokairu kontratuaren esparruan hileroko egindako ordainketen frogagiria (banku transferentziaren frogagiria, onuradunak agindua).

Asimismo, también podrán presentarse en los lugares mencionados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El Ayuntamiento de Usurbil mediante el Nudo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Usurbil va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

– DNI o documento equivalente de la persona solicitante y de las personas que formen parte de la unidad de convivencia.

– Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

– Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

– Bienes inmuebles: Titular de viviendas urbanas.

– IRPF: Resumen de la declaración.

Los siguientes documentos relativos a los ingresos e impuestos del ejercicio de todos los miembros de la unidad de convivencia:

– Certificado de vida laboral.

– Pensionistas o perceptores de prestación o subsidio: Certificado de las mismas, correspondientes de dicho ejercicio.

Para quienes estén exentos de la obligación de declarar por el Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, se comprobarán los siguientes documentos:

– Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración de IRPF en dicho ejercicio.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Para realizar la solicitud de subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

– Instancia de solicitud (anexo I).

– Copia del contrato de alquiler de la vivienda.

– Resguardo del depósito del contrato de arrendamiento o de la fianza en el registro de contratos de arrendamiento de fincas urbanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Justificante de los pagos mensuales realizados en el marco del contrato de alquiler (justificante de transferencia bancaria ordenada por la persona beneficiaria).

– Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

– Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen adierazpena, Udalak behar diren egiaztapenak egin ditzan.

– Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

– Etxebizitzaren titularkidea izanez gero, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.

– Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

– Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

– Beste etxebizitza baten jabe bada, % 50 baino gehiago, eta hura erabili ezin bada:

– Banaketa edo dibortzioa dagoenean, hitzarmen arauemailea eta epai judiziala.

– Etxe-gabetzea denean, etxe-gabetzea erabaki duen epaia.

– Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena.

– Hondamendia denean, Usurbilgo Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena.

Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.

#### 7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hogeita (20) lanegunekoak izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bisharamunetik hasita.

### IV. DIRULAGUNTZAK EMATEA

#### 8. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren ehuneko bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehieneko muga izango du, eta gehienez hamabi (12) hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.6000.481.151.00.01.2022.

Alokairu partekatua denean, eskatzaile bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu hileko errentaren % 50a.

Aurrekontuan izendatutako diru kopurua nahikoa ez bada dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, ondorengo doitzea egingo da: lehenik zenbateko hori alokairu gastuaren % 20ko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Ondoren, beharrezkoa bada, gainditutako zenbatekoa alokairu gastuaren % 30eko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Jarraian, alokairu gastuaren % 40ko dirulaguntza jasoko dutenekin egingo da eta, azkenik % 50 jasoko dutenekin.

– Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente de quien solicita la ayuda.

– Declaración de los miembros que componen la unidad de convivencia, a fin de que el Ayuntamiento realice las comprobaciones oportunas.

– En el caso de que existan menores de edad, se deberá adjuntar fotocopia del Libro de Familia o certificado de nacimiento. Esta documentación será necesaria, en todo caso, para acreditar el parentesco, siempre que se haya alegado sucesión.

– En caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación de:

– En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de participación.

– En caso de donación, escritura de donación.

– En ambos supuestos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

– En caso de ser propietario, en más de un 50 %, de otra vivienda y no poder hacer uso de la misma:

– Convenio regulador y sentencia judicial en caso de separación o divorcio.

– En caso de desahucio, sentencia que acuerda la desahucio.

– Cuando se trate de un caso de violencia machista o intrafamiliar, informe de los servicios sociales de base.

– En caso de catástrofe, informe emitido como justificante por los servicios del Ayuntamiento de Usurbil.

En el caso de viviendas en estado de destrucción, documento legal que lo declare.

#### Artículo 7. Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de veinte (20) días hábiles desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

### IV. CONCESIÓN DE LAS AYUDAS

#### Artículo 8. Cuantía de la subvención.

La cuantía de la subvención se determinará en función de la renta: será un porcentaje de la renta computable mensual, con un límite máximo de varios euros mensuales por solicitud y se concederá por un máximo de doce (12) meses en función de los ingresos.

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria: 1.6000.481.151.00.01.2022.

En caso de alquiler compartido, la ayuda a conceder a cada solicitante se calculará dividiendo la renta mensual de la vivienda total entre el número de titulares del contrato.

El importe máximo de la subvención no podrá superar el 50 % de la renta mensual.

En el caso de que la cantidad presupuestada no sea suficiente para cubrir todas las solicitudes con derecho a subvención, se procederá a realizar el siguiente ajuste: en primer lugar, dicha cantidad se distribuirá proporcionalmente entre los beneficiarios de la subvención del 20 % del gasto de alquiler (hasta un máximo del 10 %). Posteriormente, si fuera necesario, la cantidad superada se distribuirá proporcionalmente entre los beneficiarios de la subvención del 30 % del gasto de alquiler (hasta un máximo del 10 %). A continuación se realizará con las personas que recibirán una subvención del 40 % del gasto de alquiler y finalmente un 50 %.

**9. artikulua. Baloratzeko irizpideak.**

Deialdi honen ondorioetarako, diru-laguntzaren xede diren alokairu gastuak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoak izanen dira.

Onuradunei, urteko deialdiaren tauletal azaltzen diren gehieneko dirulaguntzen kopuruak esleituko zaizkie.

**10. artikulua. Prozedura.**

Hirigintza arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Hirigintza batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan.

Ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen proposamena egingo du.

Jarraian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak hamar (10) eguneko epea izango du alegazioak egiteko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Azkenik, tokiko Gobernu Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena. Behin betiko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**11. artikulua. Dirulaguntzaren Batzorde Orokorra.**

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

– Udalean dirulaguntzak banatzen dituen Batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria.

– Alkatea.

– Udal idazkaria.

– Udal kontuhartzailea.

Dirulaguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

– Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

– Dirulaguntzen legezkotasuna bermatzea.

– Dirulaguntza bikoizketak ekiditea.

**12. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Eskatzaileen urteko diru-sarrera justifikatuen arabera, hauek izanen dira dirulaguntzen zenbatekoak:

a. Pertsona bakarraren kasuan:

**Artículo 9. Criterios de valoración.**

A los efectos de esta convocatoria, los gastos de alquiler objeto de subvención serán los realizados del 1 de enero de 2021 al 31 de diciembre de 2021.

A los beneficiarios se les asignarán las cuantías máximas de subvención que figuran en las tablas de la convocatoria anual.

**Artículo 10. Procedimiento.**

El personal técnico de Urbanismo, tras valorar las solicitudes, redactará el informe y lo remitirá a la comisión de Urbanismo para que esta emita su veredicto, teniendo en cuenta el informe.

A continuación, la Comisión General de Subvenciones realizará su propuesta de resolución.

Seguidamente, el anuncio de la propuesta de resolución será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, disponiendo las personas interesadas de un plazo de diez (10) días para la presentación de alegaciones, a partir del día siguiente al de la publicación.

Finalmente, en Junta de Gobierno Local se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvenciones. La resolución definitiva se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.

**Artículo 11. Comisión General de Subvenciones.**

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

– El o la presidenta y un técnico o técnica por cada Comisión que distribuye las subvenciones en el ayuntamiento.

– El o la Alcaldesa.

– El o la secretaria municipal.

– El o la Interventora municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones serán, entre otras, las siguientes:

– Unificar los criterios para el reparto de subvenciones municipales.

– Garantizar la legalidad de las subvenciones.

– Evitar la duplicidad de las subvenciones.

**Artículo 12. Importe de la subvención.**

En función de los ingresos anuales justificados de las personas solicitantes, las cuantías de las subvenciones serán las siguientes:

a. Para una sola persona:

Diru-sarrera gordinak	Alokairu gastuaren %	Gehieneko dirulaguntza
19.000 € arte	% 50	250 €
19.000,01 eta 22.000 € bitartean	% 40	200 €
22.000,01 eta 25.000 € bitartean	% 30	150 €
25.000,01 eta 28.000 € bitartean	% 20	100 €

Ingresos brutos	% del gasto de alquiler	Subvención máxima
Hasta 19.000 €	50 %	250 €
Entre 19.000,01 y 22.000 €	40 %	200 €
Entre 22.000,01 y 25.000 €	30 %	150 €
Entre 25.000,01 y 28.000 €	20 %	100 €

b. Bizikidetzaren unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen dutenean:

b. Cuando la unidad de convivencia esté formada por más de una persona:

<i>Diru-sarrera gordinak</i>	<i>Alokairu gastuaren %</i>	<i>Gehienezko dirulaguntza</i>
28.000 € arte	% 50	250 €
28.000,01 eta 31.000 € bitartean	% 40	200 €
31.000,01 eta 33.000 € bitartean	% 30	150 €
33.000,01 eta 35.000 € bitartean	% 20	100 €

<i>Ingresos brutos</i>	<i>% del gasto de alquiler</i>	<i>Subvención máxima</i>
Hasta 28.000 €	50 %	250 €
Entre 28.000,01 y 31.000 €	40 %	200 €
Entre 31.000,01 y 33.000 €	30 %	150 €
Entre 33.000,01 y 35.000 €	20 %	100 €

Alokairua partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kotratuko titularren kopuruaren artean.

Diru laguntza gehienez 250 eurokoa izango da bizikidetzaren unitate bakoitzeko.

**13. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.**

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 100a ordainduko da.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdia ebatzi ondoren.

**14. artikulua. Iraungitzea.**

Laguntza iraungitzeko arrazoiak:

- Laguntza lortzeko baldintzak ez betetzea.
- Onuradunak uko egitea.
- Onuradunaren heriotza.
- Aurkeztutako datuetan edo eskaeran sartutako erantzukizuneko aitorenpenetan faltsutze egiaztatua.

**15. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.**

Dirulaguntza hauek bateraezinek dira helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik heldu badira.

**16. artikulua. Betebeharrak.**

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten titular onuradunek, Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete behar dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- Dirulaguntza eman den xederako erabilteza.
- Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Diruz lagundutako jardura betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

Cuando el alquiler sea compartido, la ayuda a conceder a cada beneficiario se calculará dividiendo la renta mensual del total de la vivienda entre el número de titulares de la misma.

El importe máximo de la subvención es de 250 euros por unidad de convivencia.

**Artículo 13. Pago de la subvención.**

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100 % de la ayuda.

El abono de la subvención se realizará en un solo pago, una vez resuelta la convocatoria.

**Artículo 14. Extinción.**

Causas de extinción de la ayuda:

- El incumplimiento sobrevenido de los requisitos que dieron lugar a la obtención de la ayuda.
- La renuncia de la persona beneficiaria.
- El fallecimiento de la persona beneficiaria.
- Falsedad acreditada en los datos aportados o en las declaraciones responsables incluidas en la solicitud.

**Artículo 15. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.**

Estas subvenciones serán incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales.

**Artículo 16. Obligaciones.**

Las personas beneficiarias que hayan recibido subvenciones de esta convocatoria, deberán cumplir las obligaciones que establece el artículo 6 de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil. Entre otras, las siguientes:

- Destinar la cuantía de la subvención al objeto de la subvención.
- Acreditar la realización de la actividad y, en definitiva, el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la ayuda.
- Obtener todos los permisos para el cumplimiento de la actividad objeto de subvención, y cumplir lo establecido en los mismos.



d. Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatzejarduketeki trazarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantzakontrolero jarduketeki, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketeki edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketeki ere.

e. Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

f. Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespena izatea.

g. Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitortpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrak dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

## V. ARGITARA EMATEA

### 17. artikulua. Argitara ematea.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 errege dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8 eta 9. artikuluetan, ezartzen dutena kontuan izanda, oinarri arautzaile hauei jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna bermatzeko ezarritako tresnetan.

Gainera, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000 eurokoa edo handiagoa bada, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko da.

Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

## VI. ARAUDI OSAGARRIA

### 18. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da:

- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

d. El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Usurbil y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia.

e. En caso de percibir alguna otra subvención, para el mismo objetivo, de otras administraciones o instituciones (sean públicas o privadas, estatales o internacionales), informar al órgano ofertante de la subvención.

f. Comunicar a la entidad concedente las modificaciones, objetivas o subjetivas, que se practiquen en cualquiera de los aspectos que han sido relevantes para la concesión de la subvención, y obtener su aprobación.

g. Tener conocimiento de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, según lo establecido en las disposiciones vigentes, en las que se incluyen las establecidas por el Ayuntamiento de Usurbil.

Para ello, las personas solicitantes manifestarán en la declaración escrita hallarse al corriente de sus obligaciones para con la Seguridad Social o que cumplen con aquellas otras obligaciones referidas al ámbito de la Hacienda.

Por otra parte, con relación a las obligaciones del Ayuntamiento, el mismo, de oficio, podrá recabar los certificados correspondientes.

## V. PUBLICIDAD

### Artículo 17. Publicidad.

Tomando en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, en su artículo 18, el Real decreto 887/2006, de 21 de julio, en su artículo 30 y la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, en sus artículos 8 y 9, las subvenciones que se concedan de acuerdo con estas bases normativas serán publicadas en el tablón de anuncios del ayuntamiento y su página web, así como en los medios establecidos para garantizar la transparencia y el acceso a la información pública.

Además, en el caso de que la cuantía de la subvención sea de 3.000 euros o superior, también se deberá publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Siempre se respetará lo establecido en la Ley de Protección de datos Personales, por lo que los datos personales siempre se publicarán disociados.

## VI. NORMATIVA COMPLEMENTARIA

### Artículo 18. Normativa complementaria.

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en:

- La Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil.
- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.